

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 39/2019 Foru Dekretua, otsailaren 1ekoa. Onestea irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako 2018ko dirulaguntza publikoak ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko jarduerak garatzeko

Eskaerak aurkezteko epean, hirurogeita hemeretzi laguntza eskaera jaso dira.

Aurkeztutako eskabideak eta beraiei erantsitako dokumentazioa azterturik, Berdintasunerako arlo teknikoak txostenak eman zituen, eta laguntza balioesteko batzorde teknikoak izenpetu egin

zituen. Bertan, adierazten da aurkeztutako eskaera bakoitzari balioespen irizpideak aplikatu ondoren dagokion puntuazio osoa, eta proposatzen da dirulaguntza hogeita hamalau erakunderi ematea, 190.000,00 eurotan baloratutako proiektuetarako.

Deialdiaren ebazpena ezartzen duen 8. artikulua arabera.

Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak hauei ematen die berdintasun arloa burutzeko eskumena, 7.c) artikulua indarrez.

Horregatik, eta Diputatu Nagusi gisa dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako 2018ko dirulaguntza publikoen deialdia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko jarduerak garatzeko.

Bigarrena. Laguntza puntuaziorik haundiena atera duen erakundeei ematea, I. eranskinean azaltzen den moduan 190.000,00 euroko en batekoarekin. Xedapen erreferentzia: 105/68/000 19.5.19.

Halaber, baimena ematen zaio Zinhezba Elkarteari pertsona profesional baten azpikontratazioa egiteko, hurrengo lan hauetarako: Araban zeharreko hainbat herritan gauzatuko diren bideoforum saioen proposamena eta dinamizazioa.

Hirugarrena. Erakundeei eta proiektuei, II. eranskinean adierazitako eran, laguntza ukatzea.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordaindu dezala emandako laguntzaren zenbatekoa, laguntza arautzen duten oinarrietan zehaztutako moduan.

Bosgarrena. Aurrerakinak gauzatu ahal izateko, onuradunak aipatutako datan epea bukatuta eta justifikatu gabe dauden AFAk diruz lagundutako egitasmo guztiak aurrez justifikatu beharko ditu.

Seigarrena. Ebazpen honen berri ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko jarduerak garatzeko irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako 2018ko dirulaguntza eskatu duten erakunde eskatzaileei.

Zazpigarrena. Baimena ematen da amaitutako proiektuen azken justifikazioaren epea luzatzeko, eta hogeita hamar egun balioduneko epea ematen da, deialdia jakinarazten denetik hasita.

Zortzigarrena. Deialdiko betekizunen arabera, proiektuaren gauzatze epea aldatu behar duten elkarteek gauzatze-epearen aldaketa eskatu ahal izango dute, baldin eta proiektua 2018an hasi bazen eta iraupena ez bada 12 hilabetekoa baino gehiagokoa. Ebazpen honen jakinarazpena eman eta hurrengo 15 egun baliodunetan eskatu behar dute aldaketa, proiektua bukatzeko epea amaituta egon ala ez.

Bederatzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, ebazpena hartu duen órgano berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik; edota, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, 8. eta 46.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Hamargarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN